

- **BALIO PROPOSAMENA**

Samele supermerkatu baserritarra da; hau da, gure produktu guztiak baserri desberdinetatik hartutakoak dira. Horrela, hurbileko eta kalitatezko produktuak eremu berdin batean biltzen ditugu; hortaz, bezeroak ez dira denda desberdinetara joan behar.

- Bezeroaren ongizatea: prezio-, aniztasun- eta erosotasun-itxaropenak asetzea.
- Lan-konpromisoa: behar bezala hautatutako langileak, gaituak eta ordainduak edukitzea.
- Taldean lan egitea: aldizkako talde-bilerak egitea.
- Lan arduratsua: egoera bakoitzean arduratsua izatea, enpresaren barruko eta kanpoko jokabideak bezeroen eskakizunei erantzungo zaie.
- Ingurumenarekiko errespetua: eskaintzen den zerbitzu bakoitzak oso kontuan izan behar du ingurumenarekiko errespetua, horrela etorkizuneko belaunaldien ongizatea eta ingurunea ere errespetatzen baitira; horietako bat, plastikoa murriztea izango litzateke; gure helburua plastikorik ez ikustea gure supermerkatuan izango litzateke.
- Baliabideen erabilera egokia: baliabideak ahalik eta gehien aurreztuz gero, enpresako edozein arlotako etekinik handiena lortuko da.
- Sinesgarritasuna: balio oso garrantzitsua, beti zintzotasunez, errespetuz eta gardentasunez jokatzeko irakasten diguna, ezkutuko ezer gabe, erabiltzaileek konfiantza osoa izan dezaten eta ahalik eta denbora laburrenean ohiko bezero bihurtu daitezten.

